BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**Prentsa-oharra**

# Batzar Nagusien biharko Osoko Batzarra Abellanedako Batzarretxean izango da

**Bilbon, 2012ko ekainaren 27an.** Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, Ana Madariagak, Osoko Batzarrerako deia egin dau datorren eguenerako, ekainaren 28rako, sasoi honetan ohikoa izaten danez Abellanedako Batzarretxean egingo danerako. Urteko zazpigarren Osoko Batzarra izango da eta, goizeko 9:00etan hasita, Batzarkide-Taldeek aurkeztutako bederatzi ekimen eztabaidatuko dira: lau itaun, mozino bat, ahozko erantzun-eske bi, arau-proposamen bat eta arauz besteko proposamen bat.

Osoko Batzarra **itaunakaz** hasiko da. Bizkaiko Talde Popularrak gura dau Aldundiak esan deiola ea zelan atonduko dauen mendeko pertsona nagusien zaindarien “atseden” programea, “beste aukera batzuk” be sartu daitezan, programa horretan dagozan egoitzetako egonaldiez bestekoak be, uste dabelako holakoak “ez dirala konponbidea kasu guztietarako”.

Talde berberak, beste alde batetik, jakin gura dau Bizkaiko Foru Aldundiak zer egin dauen 2001. urtetik hona argitzeko Leioako Artea Merkatalgunearen eremuan, antxinako Lleuri II-Zuatzu zabortegia zanaren lekuan, egozan uri eta industria hondakinen egoerea eta osasunerako arriskuak zeintzuk diran, ikusita Europako Batzordeak 2001eko urtarrilaren 31n emondako arrazoitutako ebazpenak esan ebala egindako lanak ez etozala bat artezpide europar batzukaz.

Bildu Taldeak argibideak eskatzen ditu Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen trafiko-kopuruaren inguruan eta kopuruok azpiegitura horren finantza-planean daukien eraginaren inguruan. Eta beste alde batetik, Talde horrek argibideak eskatzen deutsoz Ogasun Sailari sozietateen zergarako hobarien inguruan Foru Aldundiak jarraituko dituan erispideei buruz, Bilduren ustez, milioi euro askoko irabaziak izan arren “zero edo oso gutxi” ordaintzen deutsie-ta Ogasunari.

Socialistas Vascos Taldeak, bere aldetik, eskatzen deutso Aldundiari argitu dagiala gauzatzeko asmotan dituan ekimenak bizkaitarrok geurenez lortu dogun “ongizate egoerea eta behar besteko kalidadezko enplegua” mantentzeko, behin ikusita sarrerak %4,5 jaitsi dirala urtekitaldiaren lehenengo lauhilabetekoan. Ahozko erantzun-eske baten bitartez, sozialistek beste galdera bat egiten deutsie Aldundiari, azaldu dagian zer darabilen asmotan Aldundiak Bizkaiko langabezi egoerea arintzeko, “azken hamarkadan gauza iraunkorra izan dalako Bizkaian, izan be gure Lurraldea bataz beste puntu bat eta erdi gorago egon da-ta EAEko langabezia-taseagazko”.

BizkaiKOA sortu eta lehenengo hamasei hilabeteetan egindakoei buruz Aldundiak

emondako azalpenak entzun ondoren 2012ko ekainaren 21eko Osoko Batzarrean, Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako mozino baten bitartez eskatu egiten jako Aldundiari "hartu beharreko akordioak hartu eta egin beharrekoak egin dagizala hemendik aurrera Batzarkide-Talde bakotxak horretarako izendatutako Batzarkide batek parte hartu dagian BizkaiKOAren Administrazino Kontseiluaren bileretan", informazinoa zuzenean eskuratu ahal izateko.

Bizkaiko Batzar Nagusien Araudia aldatzeari buruz Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako **Arau-Proposamena** aintzat hartzeaz eztabaidatuko da hurrengo, eta hortik lortu gura da batzarkideen botoa beste taldekideren bateri itxi ahal izatea batzarretara joaterik ez daukienean "bizitzako une jakin baten jazo leitekezan egoera pertsonalakaitik (gaisotasun larria, haurdunaldia, gurasoek sema-alabak zaindu beharra)".

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**Nota de prensa**

# El pleno de mañana jueves se celebrará en la Casa de Juntas de Abellaneda

**Bilbao, a 27 de junio de 2012.** La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, ha convocado un nuevo pleno para este jueves, 28 de junio, que se celebrará como suele ser habitual por estas fechas, en la Casa de Juntas de Abellaneda. El séptimo pleno del presente año comenzará a las 9 de la mañana y entre las iniciativas de los diferentes grupos junteros (nueve en total) se incluyen cuatro interpelaciones , una moción, dos preguntas orales,  una proposición de norma y una proposición no de norma.

El pleno comenzará con las interpelaciones. El Grupo Popular Vizcaíno quiere que la Diputación le responda a su planteamiento de elaborar un programa "respiro" para las personas cuidadoras de mayores dependientes que incluya "otras opciones" a la única contemplada en este programa, como son las estancias en residencias, ya que entienden que "no son una solución para todos los casos".

Este mismo grupo reclama, por otro lado, explicaciones sobre las actuaciones que ha realizado desde 2001 la Diputación para controlar los residuos urbanos e industriales depositados en el área del Centro Comercial de Artea (Leioa), en el antiguo vertedero de Lleuri II - Zuatzu (Leioa), a la vista de la resolución de la Comisión Europea de ese año que denunciaba el incumplimiento de determinadas directivas europeas medioambientales.

El Grupo Bildu requiere a su vez información sobre el volumen de tráfico que mantiene actualmente la Variante Sur Metropolitana, y en qué forma afectan estos números al plan financiero de la llamada "Supersur". Aparte, el segundo grupo en número de apoderados en la Cámara vizcaína, solicita que el Departamento de Hacienda de la Diputación aclare las bonificaciones establecidas a grandes empresas en el Impuesto de Sociedades -que, según este grupo juntero, obtienen millones de euros de beneficio y no tributan "nada o casi nada" en Bizkaia.

Por su parte, el Grupo Socialistas Vascos pretende que la Diputación concrete las acciones que piensa llevar a cabo de cara a mantener una estructura económica competitiva que garantice el modelo de "estado del bienestar" y un "suficiente" nivel de empleo de calidad, después de conocer el descenso de la recaudación de un 4,5% en el primer cuatrimestre del año. A través de una pregunta oral, los socialistas insisten en pedir explicaciones al Gobierno foral sobre el empleo en Bizkaia. Quieren conocer las acciones que pondrá en marcha el ejecutivo para "paliar" la tasa de paro del Territorio

de Bizkaia que se sitúa históricamente “siempre un punto por encima” de otros territorios de la CAPV.

Asimismo, después de escuchar las explicaciones de la Diputación en el pleno del pasado 21 de junio sobre el balance de los primeros 16 meses de actividad de la sociedad foral Bizkaikoa, el Grupo Popular Vizcaíno solicita a través de una moción que un miembro de cada grupo juntero pueda asistir como oyente a las reuniones del Consejo de Administración de esta sociedad encargada de la coordinación de los museos vizcaínos, a fin de disponer de información de primera mano.

El pleno concluirá con una Proposición de Norma del Grupo Popular Vizcaíno para que se modifique el reglamento de las Juntas Generales de Bizkaia y se permita delegar en otros compañeros el voto en los plenos en “algunos supuestos especiales” como periodos de embarazo, paternidad, maternidad o enfermedad grave.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA